



2025SPLE0009
9.bilera: OHIKOA 2025/11/27

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2025/09

EGUNA: 2025/11/27

HASIERA ORDUA: 19:00

AMAIERA ORDUA: 19:25

TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa.

BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.

EAJ-PNV udal taldea:

Asier Urain Buenetxea.

Jon Riaño Ojanguren.

Monica de Prado Paniagua.

Anton Garay Berezibar.

Ainhoa Urbieta Egaña.

EH Bildu udal taldea:

Gilen Garcia Boyra.

Itziar Irizar Beristain.

Antxoka Elorza Altuna.

Aritz Larrañaga Unanue.

Edurne Aristi Careaga.

Jon Ander Urain de Jesus.

Orain Deba udal taldea:

Isidro Aristi Oruezabal.

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

1.- Aurreko bilkurei dagozkien akten zirriborroa onartzea, hala badagokio.

Udalbatzari aurkeztu zitzaizkion, onar zitzan, 2025eko irailaren 25ean eta urriaren 30ean eginiko osoko bilkuren ohiko bileren aktak.

Iraileko bilkurari zegokienez, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen, 2025eko irailaren 25ean eginiko osoko bilkuraren bileraren akta.

Urriko bileraren aktari zegokienez, hainbat akats atzeman ziren, eta horrela zuzentzea proposatu zen:

- a) Gai zerrendako 3. puntuan «Onartzea, hala badagokio, 2026ko Ordenantza Fiskalak» aktaren 4. orrialdearen amaieran, hau dioenean «*Alkateak **Orin Deba eta EH Bilduko galdetu zien ea zerbait adierazi nahi zuten, eta ezer adierazi ez zuten, bozketa egin zen, eta aldeko zapi botoekin eta sei abstentziorekin, Udalbatzak onartu **zuen Debako Udaleko 02/2025 kreditu aldaketa.*****», beste hau esan behar du «*Alkateak **Orain Deba eta EH Bilduko galdetu zien ea zerbait adierazi nahi zuten, eta ezer adierazi ez zuten, bozketa egin zen, eta aldeko zapi botoekin eta sei abstentziorekin, Udalbatzak onartu **zituen 2026rako ordenantza fiskalak.*****»
- b) Gai zerrendako 8. puntuan «Onartzea, hala badagokio, Zubeltzu zinearen erosketa», aktaren 9. orrialdean, hau dioenean «*1.- Antolakuntza Batzordean dokumentaziorik ez. Baina gure galdera guztien ostean bai jaso genuela dokumentazio pila bat, eta ez dugu ulertzen zergatik ez zitzaigun helarazi batzordearen deialdiarekin batera, legeak aurreikusten duen bezala. Batzordean bertan egindako baieztapenen eta dokumentazioaren arteko kontraesanak ikusi ditugu, eta gezurra ere esan **genizula** baieztatu dezakegu.*», beste hau esan behar du «*1.- Antolakuntza Batzordean dokumentaziorik ez. Baina gure galdera guztien ostean bai jaso genuela dokumentazio pila bat, eta ez dugu ulertzen zergatik ez zitzaigun helarazi batzordearen deialdiarekin batera, legeak aurreikusten duen bezala. Batzordean bertan egindako baieztapenen eta dokumentazioaren arteko kontraesanak ikusi ditugu, eta gezurra ere esan **zenigula** baieztatu dezakegu.*»
- c) Gai zerrendako puntu berean, 13. orrialdearen hasieran, hau dioenean «*Alkateak moztu zion adierazteko nahi zuena egin zezakeela, baina ... »*, beste hau esan behar du «*Alkateak moztu zion adierazteko **ez zela beharrezkoa dokumentua irakurtzea, nahi zuena egin zezakeela, baina ... »*** esaldi hori gabe ez baita ondo ulertzen paragrafo horren bukaeran jasotzen den esaldi hau «*Gilenek esan zuen gero erantzun zuela horri, eta ez zuela dokumentua irakurriko alkateak horrela eskatuta.*»
- d) Gai zerrendako 9. puntuan « Eskari eta galderak», aktaren 16. orrialdean, puntu horren 3. paragrafoaren erdialdean, hau dioenean «*... eta eskatu zuen amaitzen utzi zezatela, eta alkateak **adostasuna** adierazi ondoren, azaldu zuen, ... »*, beste hau esan behar du «*... eta eskatu zuen amaitzen utzi zezatela, eta alkateak **ikusiko** zuela adierazi ondoren, azaldu zuen, ... »*

Udalbatzak onartu zuen proposatutako zuzenketak, eta 2025eko urriaren 30ean eginiko osoko bilkuren akta onartua geratu zen aipatutako zuzenketekin.



2025SPLE0009
9.bilera: OHIKOA 2025/11/27

2.- Alkatetzaren dekretuen kontrola.

Alkateak galdetu zuen ea inork zerbait esateko ote zuen Alkatetza dekretuen harira.

Gilen Garciak, San Roke-Zabale bidean eta Oloki-Iparragirre bidean atazak jarri eta pasoa konpontzea kontratu txikiaren buruzko 579/2025 Dekretuaren harira, zalantza bat zuela argitzeko: Oloki-Iparragirre bidean gatazka bat zegoela, paso ixten zuelako, ez zuelako erabiltzen uzten, eta Udaltzaingoarekin ere joan izan zirela, baina, jabeak nagusiak zirelako eta haiekin talkan ez ibiltze arren, eta galdetu zuen ea nola bideratu ote den gaia, desbioren baten bitartez, edo bidea etxe ondotik jarraitzen ote duen.

Asier Urainek erantzun zion, 2016an herri bideen inbentario bat egin zela, eta herri bideak errespetatzea dutela helburu, eta inbentarioan jasotakoa betearazi egin zela.

Ez zen egon galdera edo iradokizun gehiago, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratu zen.

3.- Onartzea, hala badagokio, Debako Udaleko 3/2025 kreditu aldaketa.

Gaia aurkeztu aurretik, alkateak azaldu zuen Antolakuntza Batzorderen irizpenean jasotzen zela 2025eko azaroaren 17an egindako ohiko bileran gaia azertu zela eta irizpena aho batez eman zela, baina akats bat zegoela, izan ere, kreditu aldaketa onartzearen aldeko irizpena eman zela EAJ eta Orain Debako ordezkarien aldeko 3 botoekin eta EH Bilduko ordezkarien 2 abstentziorekin.

Irizpenean atzemandako akatsa argitu ondoren, aurkeztu zen Kontu-hartzailetzak prestatutako Debako Udaleko 3/2025 kreditu aldaketa, honako partidei eragiten diena:

GASTUAK:

| <u>Partida</u> | <u>Zenbatekoa</u> |
|--|-------------------|
| Hondartzako sorosleak | 49.800,00 |
| Futbol zelaiko aerotermita | 41.403,00 |
| Gaztelekuko leihoak | 13.093,00 |
| Latsurregiko leihoak | 14.150,00 |
| Energia komunitatea | 6.216,00 |
| Amiantoren errolda | 6.969,00 |
| Arronamendiko bidearen konponketa | 4.719,00 |
| Astillero kaleko kamerak | 12.090,00 |
| San Roke jaiak | 37.000,00 |
| Simon Berasaluzeko lokala | 24.750,00 |
| Bide seinaleak | 18.000,00 |
| Eraikinen konponketa eta mantentze lanak | 9.000,00 |
| Zezen plazaren muntaia | 12.100,00 |

EBILITAKO BALIABIDEAK:

| <u>Partida</u> | <u>Zenbatekoa</u> |
|-------------------------|-------------------|
| Altxortegiko soberakina | 293.990,00 |

| | |
|---------------------------------|-----------|
| Hiri ekipamenduaren konponketak | 9.700,00 |
| Eraikinen garbiketa. ECLAT | 35.000,00 |

GUZTIRA **293.990,00** **GUZTIRA** **293.990,00**

Gilen Garciak azaldu zuen, behin irizpenaren akatsa zuzenduta, adierazi nahi zuela eurek abstenitu zirela ez kreditu aldaketan bertan jasotzen denarekin ados ez zeudelako, baizik eta urriaren 30eko Osoko Bilkuran salatu zituzten irregulartasunekin koherentziari eusteko, eta oraingoan ere abstenitu egingo zirela.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, aldeko 7 botoekin eta 6 abstentziorekin, onartu zuen Debako Udaleko 03/2025 kreditu aldaketa.

4.- Onartzea, hala badagokio, Itziarko Auzo Udaleko 2/2025 kreditu aldaketa.

Aurkeztu zen Itziarko Auzo Udalaren aurrekontuaren 2/2025 kreditu aldaketa. Hau da kreditu aldaketa horren laburpena:

| GASTUAK: | | EBILITAKO BALIABIDEAK: | |
|------------------------------|-------------------|-------------------------------|-------------------|
| <u>Partida</u> | <u>Zenbatekoa</u> | <u>Partida</u> | <u>Zenbatekoa</u> |
| Lasturko aterpetxeko komunak | 12.000,00 | Altxortegiko soberakina | 41.000,00 |
| Pikoteko bidea | 14.000,00 | | |
| Kultur jarduerak | 15.000,00 | | |
| GUZTIRA | 41.000,00 | GUZTIRA | 41.000,00 |

Itziarko Auzo Udalaren Juntak 2025eko azaroaren 13an eginiko bileran kreditu aldaketa hori onartu zuen. Hala ere, Itziarko Auzo Udalaren aurrekontua Debako aurrekontu kontsolidatuaren parte denez, Debako Udaleko Osoko Bilkurari ere dagokio kreditu aldaketa hori onartzea.

Antolakuntza Batzordeak, 2025eko azaroaren 17an egindako ohiko bileran, aho batez, Itziarko Auzo Udaleko 2/2025 kreditu aldaketa onartzearen aldeko irizpena eman zuen.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen Itziarko Auzo Udalaren aurrekontuaren 2/2025 kreditu aldaketa.

5.- Onartzea, hala badagokio, Debako Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala 2026/2029.

Alkateak azaldu zuen, Lurraldetasun Batzordeak, 2025eko azaroaren 18an egindako ohiko bileran, aho batez, irisgarritasun unibertsalerako plan integrala onartzearen aldeko irizpena eman zuela, eta plana dagoeneko jendaurrean zegoela.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen Debako Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala 2026/2029.



2025SPLE0009
9.bilera: OHIKOA 2025/11/27

6.- Onartzea, hala badagokio, hondartzen erabileraren ordenantzaren aldaketa.

Alkateak azaldu zuen aldaketa Debako txakurren aldeko plataformatik egindako eskaera baten ondorio zela, txakurrek udaldian hondartzan sartzeko aukera izan zezaten.

Aldaketa ordenantzaren 9. artikuluari bakarrik eragiten ziola, izan ere, artikulua horren arabera, etxeko animaliak debekatuta dutela hondartzan sartzea, salbuespena dela urriaren 1etik apirilaren 30era, eta proposatutako aldaketa onartuz gero, maiatzaren 1etik irailaren 30era bitartean txakurrek hondartzan sartzeko aukera izango dutela, gaueko 21:30etatik goizeko 06:00ak bitartean.

Lurraldetasun Batzordeak, 2025eko azaroaren 18an egindako ohiko bileran, Ingurumen teknikariaren txostenarekin bat eginez, hondartzen erabileraren ordenantzaren aldaketa onartzearen aldeko irizpena eman zuen, aho batez.

Gilen Garciak azaldu zuen orain alkateak ondo azaldu zuela, baina igorritako irizpenaren testuan udan bakarrik aipatzen zela, eta horrela izango zela uste bazuen ere, komenigarria litzatekeela ordenantzan data zehatzak azaltzea.

Alkateak erantzun zion, data zehatzekin adostu zela, maiatzaren 1etik irailaren 30era bitartean, gaueko 21:30etatik goizeko 06:00ak arte, eta ordenantzan horrela jasoko dela.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen hondartzen erabileraren ordenantzaren 9. artikulua aldaketa.

7.- Onartzea, hala badagokio, Debako Udalaren, UEMAREN, eta Kutxabanken eta Laboral Kutxaren arteko hitzarmenak finantza-arloan euskararen erabilera areagotzeko.

Alkateak azaldu zuen hitzarmen horiek UEMAK proposatutakoak zirela, hain zuzen, indarrean daudenak urtebetez luzatzea.

Antolakuntza Batzordeak, 2025eko azaroaren 17an egindako ohiko bileran, aho batez, aldeko irizpena eman zuen.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu zituen finantza-arloan euskararen erabilera areagotzeko Debako Udalaren, UEMAREN, eta Kutxabanken eta Laboral Kutxaren arteko hitzarmenak.

8.- Onartzea, hala badagokio, DEBEGESAREN eta Debako Udalaren arteko lankidetzahitzarmena, herritarrei "Energia Argitu Kit" mailegu-zerbitzua emateko.

Alkateak azaldu zuen DEBEGESAREN proposamena izan zela urtebeterako lankidetzahitzarmena.

hitzarmen bat sinatzea, herritarrei “Energia Argitu Kit” mailegu-zerbitzua emateko. Horren bitartez herritarrek aukera izango dutela beraien etxeetan energia urritasunak non egon litezkeen detektatzeko, eta, horrela, energian %5 eta %10en arteko aurrezpena lortzeko.

Hitzarmena sinatuz gero, zerbitzua Udalak emango duela, Harrera zerbitzuaren bitartez, herritarrek 14 egunez kit hori, maileguz, etxera eramateko aukera emango zaiela, eta aukera hori izateko, hitzarmena sinatu beharra zegoela.

Lurraldetasun Batzordeak, 2025eko azaroaren 18an egindako ohiko bileran, hitzarmena onartzearen aldeko irizpena eman zuen.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen DEBEGESaren eta Debako Udalaren arteko lankidetzahitzarmena, herritarrei “Energia Argitu Kit” mailegu-zerbitzua emateko.

9.- Onartzea, hala badagokio, Giza Eskubideen Nazioarteko egunaren adierazpen instituzionala.

Alkateak gaia aurkeztu ondoren adierazpenaren testua irakurri zuen:

«ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: GGEE EGUNEAN

Abenduaren 10a, Giza Eskubideen Nazioarteko eguna da. 1948an, Parisen, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak aldarrikatutako adierazpena guztiontzat garrantzitsua da, oinarri etiko bat ezartzen duelako. Bertan jasotzen dira munduko pertsona orori, pertsona izanagatik, dagozkion eskubideak. Estatu eta erakundeek bai eta gainontzeko hiritarrek elkarri bermatu behar dizkiogun eskubideak dira.

Gaurkoan, Udaleko alderdi guztien adostasunarekin, udal bezala adierazpen instituzional hau plazaratzen dugu, indarkeria politikoa eta terrorismoaren testuinguruan izandako hildako biktimak aintzat hartuz. Aurten, bizitzeko eskubidea urratu zitzaizen herritarrak ditugu gogoan. Ez zuen inoiz gertatu behar.

Adierazpen honen bitartez gogoratu nahi ditugu ETak Deban hildako Carlos Arginberri Elorriaga, Manuel Albizu Idiakenez eta Benito Arroyo Gutierrez.

Bada, bestalde, behar beste argitu ez den kasu bat, Deban hilik agertutako Josu Zabala Salegi-rena, alegia. Debako udalak bat egiten du Josu Zabala Salegiren familiarekin eta ikerketa burutzeko eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Ebaluazio Batzordeari.

Herriko memoria kolektiboa egitea garrantzitsua da, denon artean egin beharrekoa, gertatu izandako Giza Eskubide urraketa guztiak aintzat hartuko dituen eta bizi izandako gertakizunen aurrean azterketa kritikoa egingo duena. Biktima guztiak eskubidea dute gertatutakoaren egia jakiteko, justizia, aitortza eta erreparazioa izateko eta aldi berean, neurriak hartu behar ditugu ez dadin berriz errepikatu.

Debako udaleko alderdi guztiok adostasunez agertzen dugu elkartasuna eta gizatasuna biktimekiko eta benetako konpromisoa ere bide honetan zintzoki jarraitzeko. Etorkizuna eraiki nahi dugu iraganeko zauriak osatuta eta pausuak ematen jarraitu behar dugu Giza Eskubideak oinarri dituen kultura demokratiko sendo baten alde.



2025SPLE0009
9.bilera: OHIKOA 2025/11/27

Adierazpen hau amaitu aurretik, Debako udaleko alderdi guztiek, hildako familiei gure elkartasuna agertu nahi diegu.»

Udalbatzak, aho batez, onartu zuen Giza Eskubideen Nazioarteko egunaren adierazpen instituzionala.

10.- Onartzea, hala badagokio, Euskararen Nazioarteko egunaren adierazpen instituzionala.

Alkateak azaldu zuen UEMAren, Eusko Jaurlaritzaren eta EUDELen artean adostutako adierazpena zela, eta, jarraian, horren testua irakurri zuen:

«*ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2025*

Euskara ZUGAN, NIGAN, GUGAN

Euskarak bide luzea egin du.

Luzeena, agian, Europa zaharrea.

Eta hala ere, bere bidea ez da amaitu: bizirik dirau.

Zein da sekretua?

Zein indar, zein ilusio izan da gure hizkuntza gaur arte ekarri duena?

Milaka urte, milaka pertsona, milaka amets eta ahalegin.

Norbanakoen indar isilak, belaunaldiz belaunaldi, gure hizkuntza zaharra gazte bihurtu du.

Debekuen aurrean, eutsi genuen.

Isilaraztearen aurrean, hitza berreskuratu genuen.

Euskara, gure zaharren hizkuntza izatetik, gazteen hizkuntza izatera pasa da.

Argi-izpi berri hauekin marraztuko dugu etorkizuna.

Euskararentzat aukera berriak zabalik daude.

Hazi eta berritu dadin lanean ari gara.

Bizi garen mundu nahasi eta aldakor honek, ordea, zaildu egiten du komunitatearen indarra eta zentzua.

Hiztun-komunitatea ez da berez mantentzen.

Zaindu, elikatu eta piztu egin behar da.

Horregatik, unea da.

Euskararen erabilerarako eta transmisiorako bide berriak jorratzeko unea.

Aisialditik lan munduraino, eta norbanakotik erakundeetaraino, euskaraz hitz egiteko

gune erosoak sortzeko unea.

Belaunaldi berrien artean euskararen transmisioa indartzeko unea.

Euskararen ezagutza zabaltzeko unea.

Erabilera sustatzen duten ingurune biziak zaindu eta berriak irabazteko unea.

Indarrak bildu eta urrats berriak eta ausartak egiteko unea.

Asko dugu egiteko, badugu zer hobetu.

Eta prest gaude!

Euskaraz dakiten eta oraindik ez dakitenekin batera.

Elkarrekin egiteko.

Eskerrik beroena urte luzez euskara bizi, euskaraz bizi eta biziarazi dutenei.

Zuen lan isilak ekarri gaitu honaino, eta etorkizunak oraindik ere zuen beharra du.

Pozetik, atxikimendutik, ilusioz eta emozio positiboetatik abiatuta, euskarari distira emateko,

Eta euskara guztion hizkuntza bihurtzeko.

Euskara da!

Guztiontzat da.

Euskara ezagutzen ez dutenentzat ere, ate berri bat da.

Batzen gaituen hizkuntza bat.

Elkar ulertzeko gonbidapen bat.

Mundu berri bat irekitzen zaio euskarari.

Eta euskararekin, edonori.

Ate berriak zabaldu eta lur zoru berriak landuko ditugu, denon artean.

Hazi emankorragoak ditugu lur berria ereiteko.

Atzeak erakuts diezagula aurrea nola dantzatu.

Norberetik hasita egingo dugu bidea.

Guztion baitan baitago euskararen jauzia.

Zugan, nigan, gugan.

2025eko Euskararen egunean, gugandik abiatuta, ondorengo konpromiso hauek hartzen ditu Debako Udalak:

- Udal politiketan euskara erdigunean jartzea.*
- Hizkuntza politikan atzera urratsik ez egitea.*
- Euskarak behar duen jauzian udalari dagokiona egitea, eta horretarako bitartekoak jartzea.»*

Udalbatzak, aho batez, onartu zuen Euskararen Nazioarteko egunaren adierazpen instituzionala.



2025SPLE0009
9.bilera: OHIKOA 2025/11/27

11.- Eskari eta galderak.

Ez zen egon eskaririk edo galderarik.

Besterik ez zegoenez, 19:25etan alkateak amaitutzat eman zuen osoko bilkuraren bilera, gogorazik Osoko Bilkuraren hurrengo ohiko bilera abenduaren 18an, osteguna, arratsaldeko zapietan izango zela.

Alazne Txurruka Allika
Alkatea



Jose Luis Salaberri Iñarra
Idazkaria

